

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Itzp. 12. Euzko Legea 27. 1986

28 Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1989.

Otsaila



Ale honetan nortasun handiko emakumea ekarri dugu gure orrialdeetara: MAYI MARTINEZ ARANBURU. Mayik, eta senarra izan zuen Bixente Iraolak, farmaziari, botikari, eskeini dizkiote egunak eta gauak, penak eta nekeak, pozak eta zorion-momentuak. Eta farmaziari eskeintzeak jendeari eskeintzea esan nahi du, hain ondorengo ezagutzen duen Hondarribiko jendeari.

- Hondarribiko II Herri Olinpiada.
- Txalo beroak merezi dituzten lan txilak.
- Herriko Kanposantua Faraon egin nahi izan zeneko historia.
- Hondarribiko arpolarien oroitza kantuetan gordeta.
- Gehiegizko abiaduraren arriskuak herrian barrena.
- Ikastolako neska-mutikoen ibilerak eta harremanak.
- Arrantzako kondaira zaharrak eta berriak.
- Arbolak landatzeko eta txertatzeko sasoiaren garaia eta.
- Hondarribiko sukaldari ospetsu batek idatzitakoak...

Hauek eta beste gai batzuk aurkituko dituzu ondoko orrialdeetan zehar irakurgarri.

KASINO ZAHARRA IREKI BERRIA

Gabon egunez Kasino Zaharra inauguratu zen jubilatuaren etxea izateko prestaturik. Obra handia egin da barruan eta beneran dotore gelditu da. Imanol Murua Diputatu Nagusiak bere hitzaldi laburrean aitortzen zuenez Gipuzkoa osoan zehar jubilatuaren egoitzak inauguratzu ibili izanagatik ez omen du hemengoaren parekorik ikusi.

Herriar asko agertu ziren eguerdi eguzkitsu hartako inaugurazioan, adinekoak batez ere, emakumezkoak eta gizonezkoak, etxe berriara ikusi eta inaugurazioan parte hartu nahiak erakarrita. Kanpoan, Maltzeta trikitilariaren soinu alaiak ematen zuen ongietorria, eta berehala bete-beteta zegoen Kasino Zaharreko lehen solairua, jostorraz bat ere sartzen ez zelarik. Diputazioaren aldetik Imanol Muruaz gainera, Karmelo Arren eta Prudentzio Larrañaga jaunak etorri ziren, Hondarribiko Udalaren aldetik Alkatea eta talde guztietako zinegotziak zeudelarik. Lehen hitzak Alfonso Oronozek esan zituen Udalaren izenean, ondoren Imanol Muruak Diputazioaren aldetik, gero Antonio Ortiz jubilatuaren etxeko lehendakariak, eta ondoren Alfontso Gebara eta Giller jaunak herriko eta Bidasoaren eskualdeko jubilatuaren izenean. D. Martin Iturbe herriko bikarioak bedeinkatu zuen egoitza berria.

Azkenean, gusto haundiz "Arrantzale Zaharrak" abestaldeak gabon kanta sorta

zoragarria eskaini zigan goxo-goxo Tomas Galarzaren zu: ndaritzapean. Ondoren ardo tragoska eta pintxoak jendetza haren erdian mahaira hurbiltzea lortzen zutenetako.

Ezin hurbil gintezkeenok momentu hura aprobetxatu genuen Kasinoko goi-beheak ikusteko. Etxeak hiru solaire ditu eta ongi aprobetxatua dago adinekoentzat hainbat zerbitzu antolatzeke: mantenimentuzko gimnasioa, ile apaindegia, esku lanetarako gela, bideo eta telebistakoa, irakur gela, jolas eta egon gela, kafeteria, terraza eguzkitan, e.a. Dena paradisua dirudien lorategi zabalaren erdian.

Egun hartatik ehundaka dira Kasinora joaten diren lagunak. Oraingo gimnasia egiteari ekin diote, egunero goizeko hamalaketan monitore baten laguntzaz, eta piskanaka hasiko dira bestelako ekintzak antolatzen ere. Oraingo batzordea probisonala hamar lagunek osatzen dute Antonio Ortiz buru delarik. Otsailean hasiko dira bazkide karnetak ematen eta mila lagun edo izango direla espero da.

Bestela ere, bai lorategia eta bai Kasinoa bera ere irekiak daude hondarribiar guztientzat. Ea, bada, piskanaka etxe irekiberriak dagokion "martxa" eta bizitasuna hartzen duen!



Arrantzale taldea Kasinoren inaugurazioan kantari.



HONDARRIBIKO II HERRI OLINPIADA

II Herri olimpiada bukaturte da, baina oraindik gelditzen dira zenbait ekintza eta jendeak gogoz jarraitzen du, bai partaideek eta bai ikusleek.

Azkeneko bi asteburuetan San Pedro Kalean egin diren soka-tira saioetara egundoko jende pila bildu da, hantxe bazegoen indarra, ez zeukaten nolanhiko sasoi, baina norbaitek irabazi behar eta TTPI-TTAPA taldea gelditu zen garaile bigarrena berriz TXANTXANGORRI taldea.

Herri osoan zehar egindako erloju-kontrako txirindulari proba ere ikusgarria izan zen eta zaku-lasterketa zer esanik ez.

Otsailaren 4ean (inauterietan) egingo duten musika-parodian artista bikainek parte hartuko omen dute, Aldizkari honen hurrengo zenbakian emango dugu horren berri.

Otsailaren 12an bertso-paperak eta toka, eta azkenik bazkaria trikifixa eta guzti. Honekin emango zaio bukaera aurtengo gure olimpiadari eta datorren urtekoan pentsatzen hasiak omen dira dagoeneko, hau oso ongi atera dela, baina hobetu daitekeela uste bait dute. Horregatik aurtien parte hartu ez duzenak anima zaitzkeke datorren urterako, horrenbeste kirol-moten artean bakarren bat izango bait da zuen gogokoa edo ongi doakizuen, eta gainera irabaztea ez da preziosa, parte hartzea da inportantea, 14 urte beteak baldin badituzue aurrera, hasi prestatzen, gotti ez dago adin-mugarik.

Iker Billaba

Bizi garen gizarte honetan gizakien egiteak eta lanak gehienetan ez dira zuzentazunez txalotzen. Pixka bat konturatu besterik ez dugu. Zenbat aldiz ez ote diren bi xentimo balio ez duten txepelkeriak goraitpatzen! Bi errape eder eta haundiekin (gure baseritarren mintzairaz baliatuz) jaiola bazarra, adibidez, eta horiek han eta hemen erakusten badituzu, zuretzat doaz begirada eta txalo guztiak. Aldiz, bai osasunaren aldetik, bai gizadiarentzako balioko den beste edozein aurrerapen lortzen salatu diren hainbat eta hainbat gizon eta emakumeri, edota eguneroko bizitzan goxotasun haundienarekin beren laguntza eta maitasuna eskaintzen dituztenei, ez zaie merezi duten aipamen eta txalorik jotzen.

Zuzengabekeria hau gogoan edukiz, Hondarribiko Erresidentzia edo Hospitalaen bertako xahar eta gaxoei urtero antolatzen zaien festa gogoratu nahi lerro hauen bidez.

Orain denbora asko ez dela egunkariaren bitartez ikasi genuen herriko elkarte batzuek oso gogo onez eskaini zituzten musika, gimnasia eta antzerki saioak, zuzendariek festa horietan parte hartu zuten guztiei beren esker ono agertzen zitelarik.

Egia da bizi garen giro hotz eta gogor honetan eskertzekoa dela, urtean egun batean bedere, aurregi larriak pozik eta farrez jartzea, baino oso goratik esan beharra dugu urteak egun luze asko eta asko dituela, eta, beraz, ez litzatekeela zuzena izango beraiekin egun bakar bat eskaini dugunok aipamen eta esker onak jasotzea, aipamen eta esker hauek isiltasun haundienaz urte osoan zehar egunak eta egunak eskaintzen dituztenei zabaldu gabe geldituta.

TXALOAK, MEREZI DITUZTENEI



Barkatuko didazue zuetako batzuen izenak hemen aipatzera auzartzen banaiz: Mari Karmen, Elbira, Asun, Tomasita, Mari Luz, Ttakanoko Joxepa, Don Martin, Mari-txu Arroka eta abar... Zuek bait zarete pazientzia haundiz beren errepikak entzun dituzuenak, zuek ere noiznahi, haien arratsalde aspergarri eta luzeak laburtuz, paseatzera ateratzen dituzuenak. Ongi jabetu zarete zein maite duten, maitasun hutsaren truke, aurregi alai eta erakustea eta esku be-roan artean beraien esku hotza hartzea. Azken batean, ez ote da guzientzat argibidea xahar horiek agertzen digutena: bizi luze

baten esperientzia eta honek dituen baloreak? Atzen gelditu dira ametsak, dirua, edertasuna, giza bizitzako mixeriak eta kantzak. Gelditzen den aukera bakarra maitasun hutsaren truke eskaintzen diren aurregi alai eta esku beroak dira.

Beraz, zuei, maitasun hori eskaintzen jakin duzenoi, gure, begiramen eta txaloak, eta denbora berean gure esker ondo, bizitzako galdera zorrotzetan eman diguzen argi izpiagatik.

Lourdes Zubeldia

Kanposantu berrian jaizkibelen magalean kokatu zenean, kaputxinoen baratzeko kanposantuan zeuden gorpuak hara eramanda, lehengo kanposantu hau itxi eta baratzera kaputxinoei itzuli zitzaion 1899, urtean.

1922, urtea iritsi zenean, Udalak Dominogotxoneko lurak eta baserria erostea erabaki zuen kanposantua mendealderantz zabaltzeko asmoz. Baserriaren jaberarekin inolako akordioa iritsi ez zelarik, Udalak baimena eskatu zion (eta lortu ere bai) probintziako Gobernadore Zibilarri kanposantua ekialderantz udal lurretan zabaltzeko, ahalik eta Korporazioak behin eta betiko herriaren premiei erantzun zion kanposantu berriaren kokapena erabaki zezan arte. 1923. urtea zen.

Lanen subasta urte bereko irailaren 30ean izan zen, eta urriaren 6ean Udalak zabaltze lanak Bautista Ezeiza jaunari ematea erabaki zuen 17.174 pezeta, Jose Anjel Fernández Casadevante projektugilearen zuzendaritzapean.

1924an erabat utzi ziren lanak eta kanposantu berria Higerreko farolaren ondoko lur komunean erabaki erabaki zuten Pedro Muguruza arkitektoaren ardura eta zuzendaritzapean.

Udalak 1925eko otsailaren 5ean Higerreko kanposantugintzaren lehen fasea subastatzea erabaki zuen. 1927ko irailaren 30ean egindako lanen lehen ordainketa egitea onartu zen eta hurrengo urteko otsailaren 8an bigarren faseko lanetarako deialdi publikoa egin zen.

Kanposantu hura ez zen bukatu, Bigarren Errepublikako eta ondoko udalek Farroa ez zela tokirik aproposena pentsatu bait zuten, eta gainera hiritik oso urruti zegoela.

Kanposantua ixteko jaso ziren horma sendoei Farolako kanpinga inguratzen duete gaur egun, hantxe egon behar bait zuten hilobiek.

Hilobiratzan, 1890ean bedekatu zen kanposantuan jarraitu zuten, gauroan, denok ezagutzen dugun hilerrian.

Azken urteotan honen itxura aldatu egin da.

KANPOSANTUA (III)



Farolako Kanposantuko horma.

1943 urtea zen. Nere senideak eta ni igandero joaten ginen aitarekin Kanposantura, Meza Nagusiaren ondoan, otoitz egin eta gure ama zegoen hilobira loreak eramatera. Torre baserriko aldapa estuan (bi kotxe ez ziren sartzen) eta asfaltatugabeen topo egiten genuen baserriaren ondoan zegoen askan eragotzera jaisten ziren "Kapusantuko" behiekin. Hauek ziren asteroko ikustaldian bidean aurkitzen genituen bizidun bakarrak.

Kanposantua itxia egoten zen, inor gutxi hurbiltzen bait zen hura ikustera. Hau gertatzen zenean lurperatzeari eskatzen zitzaion giltza edota berak irekitzen zizun atea irten arte zure zain gelditzen zelarik.

Hilerri barruan, metrotik gora hazten zen belarra hilobien artean. Utzia zegoen dena. Ardiek lasai bazkatzen zuten hilobien artean eta oloak eta oilarak eguzkitan ibiltzen ziren paseoa mokoka patxada ederrean. Urtean zehar horrela irauten zuen irudi hau Santu Guzien eguna hurbiltzean aldatzen zen. Urriaren azken aldean belarra moztzen zuten, ardiak eta oloak desagertzen ziren eta hilobiak garbituta lorez eta farolez apaintzen ziren.

Jende ugari joaten zen kanposantuko elizatzokan egiten zen animen bederatziherrenera, oinez, artean orain adina kotxe ez bait zegoen.

Santu Guzien eta anima egunez herri osoa joaten zen bere hildakoen alde otoitz egitera eta parrokiako apaizek nahikoa lan izaten zuten erresponsoak errezatzen.

Egun hauek igarotakoan kanposantuk bere lehengo itxura hartzen zuen berrin, tristagoa agian, inor ez bait zen ardurtzen lore zimelduak handik kentzeaz. Hantxe geratzen ziren lurperatzaileak kentzen zituen arte. Bildotsak beren bazkara itzultzen ziren eta oloak korrika ibiltzen ziren hurrengo urtera arte.

Urte batzuk igaro ziren hau dena aldatu arte. Nik igandero joaten segitu nuen baina Santu Guzien egunez joateari utzi nion.

Gaur hobera aldatu dira gauzak. Kanposantua txukun dago, zainduta eta bisitak ugariak dira.

(jarraituko du)
1989. urtarrian

Sorkunde

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Urtarrilak 30 - Otsailak 5: Erauskin
Otsailak: 6 - 12: Maiu
13 - 19: Iraola
20 - 26: Erauskin
27 - Martxoak 5: Maiu
Martxoak 6 - 12: Iraola
13 - 19: Erauskin

Maiu, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Otsailak 12: Garmendia
19: Martinez
26: Arratibel
Martxoak: 5: Garmendia
12: Martinez
19: Arratibel

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusia - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:
Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN:
Goizeko 8,30etan Betherranen
9etan Amuten
9,30etan Guadalupen
11etan Portuan

LIZARRA ETA HONDARRIBIA LAGUN

Joan den urtean, Lizarrako Ikastolako 4. mailakoak Hondarribira etorri ziren. Iritsi zirenean agurra bertsoen bidez eman genien. Denak elkarrekin hondartzan bazkaldu eta jokatu egin genituen. Arratsaldean, "Altxoraren bila" ibiliaz, Hondarribia ezagutu zuten. Gure etxeetan lo egin ta gero, Bentara joan ginen barkoz ibiltzera. Askok gustatu zitzaizkien, gehienek Itsasoa ezagutzen ez zutelako. Larunbat arratsaldean, Lizarrara itzuli ziren.

Hilabete batzuk pasa ta gero, gu Lizarrara joan ginen. Beren gelak ikusi ta gero, "Los Llanos" izeneko parkean bazkaldu genuen.

Beraiek oso doinu bereziz hitzegiten zuten. Gure herrian bezala, guk Lizarra ezagutzeko aukera izan genuen arratsaldean. Hurrengo goizen ondoko herri batera joan ginen hamaiketako egitera. Arratsaldean, pena handiz, Hondarribira itzuli beharra izan genuen. Aurtengo 4. mailakoak ere esperientzia berdina egingo dute.

5. maila A eta B



Lizarrako haurrak Hondarribiko uretan.

TZA TZA TZA

Ona da goxokizko ikatza

TSU TSU TSU

Tronpeta zalapartatsu

TZI TZI TZI

Ekoko ganbaratik erori de Urtzi

TSO TSO TSO

Han dijoaz hamaika atso

TZU TZU TZU

Ikusi ditut tronpeta batzu

TSa TSa TSa

Txipirolak bota du sailsa

TZE TZE TZE

Ipurditik sailu ditut bi itze

TZA TZA TZA

Ze sustoa eman didazun, hartzat

"HITZEZ HITZ" LEHIAKETA (5)

Laugarren deialdian bost asmatzaile izan ditugu lehiaketa honetan: Aiaitz Agirre, Marga Aristizabal, Iraitz Arruabarrena eta Itziar Mendizabal. Hona hemen, batatz beste, bidalitako erantzunak:

1) AXEXANTE

Xaxatzen duena, xirika edo ibiltzen dena. Zirikazaille, probokatzaille.

"Axexante gogorra yaiz!", "Axexante alateko axexantia".

2) ISTRUANTE

Itxura arraroa duena, berexia, bitxia, nabarmena.

"Ondo istruante jantzia zaude", "Hori duk hori sehorita istruantia".

3) ARDORA

a) Arrainek (ezkatek) ilunean egiten duten argitasuna.

b) Arratsean txardina, antxoia edo txixarroa harrapatzeko arrantza era.

"Ardora joan", "ardoran harrapatutako arraia".

4) AROIA

a) Marearen gora-beherak. b) Itsas giroa.

"Aroia gotti da; aroia betti da" "Aroia heldu da" (mareia igotzen hasi behar duenean). "Aroi ederra almejitako" "aroi txarra barra iragotzeko", "lanpernatara joateko ez da aroirikan" (mareia behean behar duela-ko).

5) FIYAKUA

Kolpea, zaplastekoa, zartakoa.

"Fiyakua emango dizut!", "Hori fiyakua eman dio kotxe batek besteari", "Hoiek fiyakua jotzen itu haiziak".

Erantzuleetako batek (M.A.) huts egin du, gure ustez, bosgarren hits honetan (fiyakua-n), beraz, lau puntu bakarrik hartuko ditu oraingo, besteek bosna dituztela.

Otsailerako, bost hitz hauek sartzen ditugu (bosgarrena baserri baten izena asmatzea izango da):

1) MOKERTU 2) AUMENTATU (ez da gehitu!) 3) BI DOMINO IDOL 4) KANTTALA.

5) Nola izena du argazkiko baserri honen? (ez dago Santiagotxotik urrutiegil).

Erantzunak bidaltzeko epea otsailaren 28an bukatzen da. Helbidea, betikoa:

"Hondarribia" aldizkaria

"Hitzez hitz" lehiaketa

Euskara Kontseilua

Udaletxea

20280 Hondarribia



ABIADURA

Hondambian abiadura handienari ibiltzen diren ibilgailuak, egazkinak ditugu, eta, diotenez, laster dira **aidean** gaurko motorrekoak baino propulsiio azkarragoen ibiliko direnak.

Aurrerapen teknikoak onuragarriak dira, noski.

Itsasoan ere, denbora bateko arraunkak, belautziak eta baporeak baino abaila handiagoan dabilten Dieselak direla medio, arrantzaleek arrain bila azkar eta umunago joateko gai dira.

Eta badugu horien beharrik!

Aidean eta **itsasoan** bezala gertatzen da **lehorrean** ere: motozikleten zilindradak eta zaratak gora eta gora doaz; gauza bera autotomibil, autobus, kamioi beste ibilgailuekin ere.

Bestalde, hemen gizakiok ere hasi gara mugitzen, eta gaur adina abiadurako pertsonarik ez da hondarribiako historia lizean ikusi: praka motxak jantzi bezain laster ditugu arineketa, eta praka lizeokook ere sendagilearen aginduetara jarri eta hasiak gara ahal dugun abiaduran ibiltzen, urteen eta osasunaren arabera, noski.

Hasiak gara ba gizakiok berezko dugun motorrarenkin entrentatzen.



Baina beldur naiz karrera honetan motorra nagusituko ez ote den, eta gailuak bezain azkar ibili ezin direnak suntsituko ez ote dituzten, gaituzten.

Martxa horretan abiatuak gara!

Begira gure herriko kaleetan zehar zer gertatzen hasi den: lehiaketa-pista bat baliatzen ariatekoak Hondarribian ziztu bizian!! herriko kaleak goi-lehiaketarako pista balira bezala!

Eta ez dira!

Hondarribiako kaleetatik ibiltzea libre dute gailuek, noski, ez dago gailuentzat debekurik; baina lehentasun osoa pertsonari zor zaie hor, eta gailuen abiadura jaitsi egin behar dute, bestela haur, heldu, elbarri eta zahar guztiak garbituko dituzte, gaituzte.

Gero, Requiem-ak garesti izaten dira, gero!!

Egia da Sabino Arana ibiltozikiko sarrerarik 40 km. markatzen dituen trafikoko-seinaleak ez direla hirigunean ageri; baina ageri ez direlako ez da gailu-abiaduraztat, ziztua libre; hirigunea gurutzatu arte ezin da iterrimingo edo aparkaleku berriko karrera-pistako abiadura hartu, oraindik, tarte horretan gizakiak ezin dire untxeak bezala ehizatu!!

Eta bere ziztuan jarraitzen badute, norbaitek gelaizari behar die legeko den isuna ezartzeko.

Hirigunea, oinez dabilten gaizakien mende bego, eta ez bestela!

Zebrabideetan berezik!!

Lau kurbilen gainean nagusi direnak errepideetan nahiko kalte egiten dute eta!

Aurrerapen teknikoak onuragarriak dira, noski, baina gizakiaren neurrian.

Martin Ugalde



“RIKARDO ARREGI” KAZETARITZA SARIA

Andoaingo Udalak sortua

Sariketa honetan aurkeztu daitezkeen lanek 1988ko maiatzaren 15etik 1989ko maiatzaren 15era bitartean egunkarietan edo aldizkarietan argitaratuak izan behar dute. Euskaraz, noski. Hiru atal izango dira: sekzioa, baloraziozko kazetaritza eta herrietako aldizkariak (“Hondarribia” adibidez). Lehen bi atalean 250.000 pezetako sariak izango dira, eta herrietako aldizkarietakoan 100.000 pezetakoa. Artikuluaren bost kopia bidali beharko dira maiatzaren 25a baino lehen helbide honetara: Andoaingo Udalategia. 20.140 Andoain. Gipuzkoa.

“KOLDO MITXELENA” I. SARIA

Errentariako Udalak sariketa honen berri bidali digu “Hondarribia” aldizkarian argitaratzeko eta hementxe doazkizue baldintzarik aipagarrienak:

Deialdi hau bi urtetik behera, euskara bere inguru sozial, historiko eta linguistikoan sakondu eta garatu duten ikerketalarnak sustatzeko da.

Lanak, euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez izango dira.

Lanak, espazio bikoitzean idatzirik 20-25 orrialde artekoak izango dira, alde batek idatzitak.

Orijinala eta hiru kopia bidali behar dira.

Saria 500.000 pezetakoa izango da.

Lanak sobre ibxi bat eramango du: sobreen azalaren lanaren titulua eta modalitateak adieraziko dira, sobreen barruan egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa.

Aurkezteko epea 1.989ko abuztuaren 31era arte izango da. Errentariako Udalategi Kultura Departamentuan.

Xehetasun gehiago nahi dituenari Errentariako Udalera jotzea gomendatzen diogu.

Blagan

MAYI MARTINEZ ARANBURU

Mayi, 67 urteko emakume kementsua dugu. Lana botika izan du, eta lan aktiboa gainera, jendearekin erlazio zuzena eta haundia eskeini dion lana, bistan dago.

Bere etxean izan gera, eta lagun maila-garriak dituen biblioteka aberatseko liburu eta berak pintatutako koadroen artean atera dire aierak hitzak, erreflexio sakonen ondorio diren hitzak.

Blagan aritu gera: Kale nagusiko panaderian lan egiten zuten gurasoak, amak ikasteko modurik ez izanagatik bere familiarientzat nahi zituen estudioak, Mayiren farmazia-ikasketak, familia, farmazia, botika, mundu bat, droga...

-M: 1921ean jaio nintzen pintor Etxenagusia kalean, bertan genuen panaderia, Ama Manuela Zizurkilgoa nuen eta ata Segundo Ibarakoa. Geroxeago, panaderia kale Nagusian jarri genuen, 15 eta 17 numeroak zituzten etxeak bota eta berri bat egin zuten. Hara joan ginen lanera eta bizitzera. Amak ikasteko gogo izugarria zuen, eta guk kultura izateko kezka haundia, denak izan beharko genuke hori.

-H: Eta zuk estudiantzeko aukera izan zenuen...

-M: 1934ean hasi nuen batxilerra, Orduan estudiantzen oso gutxi ginen. Jende gehiagok posible zuten izan bifiñ... Gure amak posible zuenari konsejua ematen zion. Eta gure kasuan, kapazitatea bage-nuen behintzat, guk ikastea nahi zuen.

Oroitzen naiz, karrera hasi behar nuenean esan zidan amak: *edozein karrera posible duzula esan naute. Nere gustokoa farmazia da. Bifiñ, suspensorik ez, ez gaude hemen denbora galtzeko. Suspensorik bada, etxera.*

Zorixarrez, gutxi ginen, kanpora atera behar zen... eta horrek dirua esan nahi zuen. Nereztat estudiantzea da la lana izan, banekien responsabilidade bat nuela, eta ni gustura.

-H: Bifiñ garai hartan Hondarbiko oso jende gutxi estudiantzen zuen...

-M: Bai, alde horretatik oso atzeratuak egon gera. Irunen muga zela eta etzela, beste modu batera zen: baziren dentista, mediku... inrondarrak. Hemen, berriz, ez Zergatik? Etzen turismoa eta arrantza besterik, diferentzia haundiegia. Jendea ere atrebizten ez? Irunen baten trenbidea, baziren makinistak... bazen estrato sozial bat. Horien seme alabak estudiantzera bialtzen zituzten.

-H: Hala ere, estudiantzeaz aparte, badakizu zen den etxean lan egitea...

- Ni interna egon nintzen, bakaziok

izaten nituenan biletara ogia partitzaera joan behar izaten nuen. Guadalupeko kamioko billa guziak tut buruan... Goizeko zazpitan gosariko ogia saku txuritan eramaten genuen. Eguerdi aldera boluak, bazkaltzeko. Hiru t'erditan, pasteleria ere bagenuen, teakin hartzeko pastak serbitzen genituen. Guk lan egiteko beharra genuen eta bagenekien, bifiñ ez ginen goseak egoten. Hondarbian gerra bifiñ lehen ez zen surik piztuzten, miseri haundia zen. Horregatik edaten zen hainbeste *ttofta*, *entofantzeko*, ez bait zen dirurik.

-H: Beste aldetik, karrera bukatu eta?

-M: Karrera bukatu eta farmazia jartzea gasto haundia zen. Urtetan etxean aritu nintzen lanean. Gero, ezkondu egin nintzen Bixente Ibarakarekin, banuen etxea, senarra, seme-alabak... eta hirugarren haurra izan nuen lanean aritzea, farmazia jartzea erabaki nuen. Eskatu, baimena eman eta kale Nagusian jarri nuen Labordan etxean.

FARMAZIA

-H: Eta kale Nagusian urtetan arituta, Portura behitatu zinen...

-M: Bai, kale Nagusian aritu nintzen, bifiñ etzen deus egitekorik, jendea segurua-renera Portura etortzen zen eta medikuari bisita eginta ondoko farmazian erosten zuten. Urte batzuek hola pasata. Portura behitatuak deiditu nuen.

-H: Esperientzia haundia duzunez, sumatuko zenuen diferentziarik garai batean jendearekin izaten zen erlazioaren eta gaur egungo erlazioaren artean...

-M: Gaur egungo erlazioa ez da lehen-goa bezalakoa. Medikua ez da edozein momentuan deitzen duzun laguna. Orduan, apaizen modura ginen, maila morealean konsejuek ematen genituen, askotan gauza sikikoa influentzia haundia bait du gauza fisikoan.

Botikaren barrenen situazio asko gertatu zaizkit, jendearekin kontakto haundia izandu dutelako, eta gainera, kontaktoa eduki nahi izandu dutelako. Eta zernahi galdetu ketu naute. Problema? Gure etxean esaten naute la *abogada de las causas perdidas*, nintzela. Satisfakzio haundia da lagundu ahal izatea. Nere lana alde horretatik asko gustatu zait.

-H: Eta gaur egungo farmazia nola ikusten duzu?

-M: Orain, farmazia *hotzgoa* da, den-da bat bezalakoa da. Kosmetika, optika... asko dago. Alde ekonomikoak ere badu bere influentzia: jendeak diru gehiago du,



Hondarbian jende gehiago dago. Herria oso sakabatsua dago, jendearekin kontaktoa galtzen duzu...

-H: Orain dela urte batzuek jendeak *sini*statzen zuten farmaziako produktuetan?

-M: Bai, jendeak *sini*statzen zuten. Responsabilidade eta seriotasun itxura eman behar zen. Ondo listatua baldin baziren, jendeak hartzen zuten esaten zeniona. Hori bai, beti izango dira hainbeste fiatzen ez direnak. Neunik ere esan ketu dut: *de la farmacia tomarás la boticaria, si es guapa, nada más.*

Hemen Hondarbian, orduan etzen Seguridat sozialak eta beste gauza batzuek ibiltzen genituen: *belar-formula* asko, geun-iki egiten genituen enplastak, pomadak. Selloak egin behar izaten genituen, *pildorak*. Nere senarra zenak, Bixentek, *injekzioak* ere egin behar izan zituen.





Gero, beste bolada batean, dena laboratoriotan egin ketu da. Gaur egun berriz hasi da pomada, kosmetika... kontua, bixin ez du kolorerik.

DROGA

—H: Azkeneko urteotan fenomeno nagusi bat dugu bai munduaren luzezabalean, bai herri mailan: drogaren problema. Zure lanbidearekin relazio zuzena duen arazoa da, nola ikusten duzu fenomeno hau munduan barrena?

—M: Sudamerikako nazioak, Asiakoak, landareak dituzte. Nazio horiek oso gaizki pasatzen ari dire. Estados Unidosekin hipotekatuak bait dagozte, eta zor haundiak dituzte. Beste bitartekorik ez dute, eta plantazioak jartzen dituzte, eta merkatuan miloi asko irabazteko modua dute. Orain dela gutxi Kolombiako gizon batek esan du gobernuak lajatzten badio plazo bat markatuko duela Estaduak zorrik ez izateko.

Guregana nola ailegatu da? Aberatsa izateko gogoa edo nahia, eta horrek balio du batzuek hobeto bizitzeko eta beste batzuek okerrago bizitzeko. Eta gaur egun ez zaio soluzioerik ikusten potentzia haundiak, gobernuak inplikaturata dagoztelako.

—H: Eta Euskal Herri mailan nola ikusten duzu fenomenoak?

—M: Euskal Herrian drogak kalte izugarria egin du. Bildurgarria izandu da, eta, konbentziturata nago, prozesua oso garbia izan da. Hemen droga nahita sartu dute. Eta gainera ez du erremediorik, mundumailako kapitalak relazioa bai dute.

Drogarena izugarria da. Lan gehixeago izan ezker, gazteria ez litzateke hainbestera ailegatu. Guk zer eskeintzen diogu gazterian? Ez dago deus ere. Ez dago aukerarik. Zer egiten dute? Elkartzen dire eta egun batean erori egiten dire. Eta gainera, beste aldetik dirua irabazi behar duena dago, ijitoak eta Sekulako manipulazioa dago.

Urte mordo batean ez da inor preokupatu. Entidade ofizialak, gobernuak ez da batere preokupatu.

Zerbait harrapatzen dutenerako zenbat pasako zuten! Hondarbian bertan, zenbat pasako zuten bi kargamento harrapatzeko! Hori oso garbi dago.

—H: Eta droga-fenomenoa farmaziekin lotu beharra dago, ugariak izan baitira asaltuak, atrakoak. Zuk ere izan dituzu makina bat...

—M: Azken urteotako boom bat izan da. Hasieran etzuen inork sinistatzen. Heroinara ailegatu biño lehen pastila sedanteekin hasi ziren. Eta nahi zuten guzia ebasten ziguten. Mukitsu batzuek ziren eta bazekiten non izaten ziren.

Nere farmazian hamaika aldid sartu dire. Azkeneko urteak bildurgarriak izandu dire. Ezin dut farmazia gehiago itxi: hamabi gilitza ditut sartzeko. Batzuek esan naute: *ixizu dena eta jarrizu leiho bat*. Bihon ez da hori, nik ezin badut nere aktibitatea desarrollatu, hortarako ez dut farmaziarik behar.

Orain, ez dizute gabaz ebasten, izatekotan egunez izan behar du, biñon ez dire droga bila etortzen, diru bila etortzen dire. Azkeneko urteetan droga ez zaie interesatzen. Orain jeringillak eta dirua nahi dute. Droga partitza astero etortzen direnez, dirua behar dute.

TXOMIN SAGARTZAZU



HONDARRIBIKO IKASTOLA

IHAUTERIAK

Ihauteriak! Hitz horrekin alaitasuna eta poztasuna gogora datozkit.

Jakin nahi baduzue ni Ziripot naiz, ihauteriko jai hauengatik hain ezaguna. Seguruaski ezagutuko nauzue.

Aurtean egunkarian irakurri dut zein festa politik egiten diren Euskalerrri osoan eta beste herrietako ihauteriak ikusteko gogo bizia sortu zait. Beti leku berean egoteaz asperturik lagun bati nere jantziak utzi eta Ziripot izan dedila eskatu diot, berak, oso konten, baietz esan dit.

Horrela maleta hartu eta Euskalerrrian zehar bidaitxo bat egitea pentsatu dut.

Baztan, Ituren, Zubieta, Lantz... mendi aldeko herri baketsu eta lanbrotsuak utzirik Tolosa aldera jo dut eta bertako jaiak ikusi. Jende asko zebilen far, algara eta fabrike-tako kearen artean.

Tolosatik atera ondoren Altsasu aldera joan naiz eta zaratak ia gor utzi nau bainan asko gustatu zait bertako ihauteriak ospatzeko era. Hendik Aretxabaletara joan naiz eta asko gustatu zait TXINODANTZA. Gasteiz, tik pasata Zaldudondora joan naiz eta nere lagun MARQUITOS nola, errudun agertu ondoren, erretzen duten ikusi. Zenbat alditan egon nintzen ni horrelako su haundi baten erdian, beroa jasan ezinik eta gainera inguruan jende pila datzatzen. Haiel jarriko nituen nik suaren erdian... Arabako lurralde hauetatik Bizkaia aldera, Markinara hain zuzen, bertako saragi dantza ikusi ondoren kostaldetik barrena Donostira hurbildu naiz: bertan izugarritzko karrozak, milaka pertsonekin, Aurrera jarraituz Hondarririba iritsi naiz. Ze herri zoragarri! Bere itsasuntzi, hondartza, mendi alde eta alde zaharreko harresi ederrekin.

Bertako desfilara doi-doi iritsi naiz eta bertan ikusi ditut haur, gazte, heldu eta zaharrak, denak mozzoraturik hemiko barre algarren artean. Pirataz, indioz, pailazoz... eta beste abarrez mozzoraturik. Baita Miel Otxin eta Ziripot ere; Hondarriribatik alde-zen nihoanean hau entzuten nuen:

Maskara a,a,a!
Ziripoten ikara,
Miel Otxin zara
gu izutzen ez gara!
Maskara e,e,e!...

Barrez hasi naiz. Euskalerririk bira hau eman ondoren nekaturik nago bainan oso alai. Orain jaiak bukatu dira eta lotara joango naiz datorren urte arte.

OIHANA ARANBURU BALERDI

8.B.

Hondarribiko ikastola



Eskolarekoak inauteriak ospatzen.




SORGINA ETA ROBOTA

Egun batean baziren robot bat eta sorgin bat. Asteazkenean sorginari gauza bat bururatu zitzaion. Robotari botoi bat zapaldu zion eta berak esaten ziona egiten zuen.


Larunbatean sorginak robotari, kotxe bat erosteko esan zion. Eta sorginari ahaztu zitzaion esatea egitazko kotxe bat erosteko. Eta noski, gezurrezko kotxe bat erosi zion.

Igandeako zortxietan sorgina oso hase-re zegoen. Eta beste egun batean sorginak beste botoi bat zapaldu zion eta robotak esaten zuen guztia egin behar zuen gure sorginak.

Ivan Garayar Iturria
2.maila



Duela para bat urte etzabaidarik anitz erabili zen portua hastearen auziaz, batzuk kirol portuaren alde eta beste batzuk arrantzale portuarena. Alde bakoitzak bere argudioak garaiatu nahirik, arrantza mespreziatu ere bai, bertako bizikera jatorra ez balitz bezala, eta, batere zalantzarik gabe, Hondarribiko bizitzan erarik zaharre-na eta jatorrena arrantza izaki. Jaizkibelen itsas-hegalean harriaroko aztemategirik bada, neronek aurkituak, eta hiriaeren lehen sigiluan ere arrantza ageri zaigu. Beraz, horiek dira Hondarribia hiri bezala sortu baino lehenagoko eta sortu bezain pronto aurki genezaken agiri zurrak. Gainerakoak, uste hutsak.



Hondarribiko zigilua (1297).

Sigilua 1297koa da eta latinezko idazkiaren barnean bale arrantzaren irudi polit bat dakar. Hiriaeren oraingo armariaren kuartelatarik batean datorrena izan behar du. Hor agertzen zaizkigu hondarribiar lehen arpoiariak.


HONDARRIBIKO ARPOILARIAK

Hondarribiarrak, bale arrantzan ospe-tsua izan ohi ziren eta joan zen mendea-aren erdialdera ba omen ziren Luis Gaiztoa, Joxe Karamelo eta Joxe Manuel Sereno arpoiari entzunak, zeintzuei kanta jarri zioten, R.M. Azkue zenaren kantategian jasorik dator, "Luis gaiztoa" izenburuz.

Azkueren kanta bilduma hori 1915. urtean saritua izan zen eta 1920. inguruan argitaratu, *Cancionero popular vasco* izen-

nez eta 655. kanta dugu orain aipatzen du-guna. Bertan dioenez: "El harponero Luis gaizto "Luis el malo" fue un ondarrés que vivió en Fuenterrabía hace unos sesenta y cinco años". Hortik kalkulatu genezake 1850. urte inguruan bizi zen pertsonaia zela eta bere adinekoak noski Joxe Karamelo eta Joxe Manuel Sereno hondarribiarrak.

Hara hemen bildu zituen hiru bertsoak beren doinuuz:



Luis gaiztoak eman lenengo arponada, balea harrapatzeko txit gizon ona da; bederatzi mila erreal zutela jorjala, estimatzekoa zen orduko arponada.

Joxe Karamelo zen bigarren golpean, ederki portatu zen bere suertean, baleari odola bizkarren betean etzitaizion gelditu ito zen artean.

Joxe Manuel Serenok indarrak baditu, haren zartadakoa Getarian aditu, jendea egin zuen orduan harritu: izugarritzko famak ekarri ditu.

Juan San Martin

DEMOGRAFIA

JAIOZTAK

ABENDUA

- 1ean: ALAITZ Garcia Iridoi
Gurasoak: Marcos eta Idoia
- 14ean: ENDIKA Etxebeste Ortiz
Gurasoak: Fernando eta M.^a Car-men
- 16ean: IKER Ezpanda Murua
Gurasoak: Jose Antonio eta Susan
- 19an: ARITZ Diez Oronoz
Gurasoak: Felipe eta M.^a Guadalu-pe
- 20an: AARON Carton Iridoi
Gurasoak: Antonio eta M.^a Jose
- 22an: MADDALEN Plaza Agirre
Gurasoak: Francisco Javier eta Leocadia
- 26an: JOSE BIZENTE Otxoteko Bengoe-txa
Gurasoak: Javier M.^a eta Juana
- 27an: JAVIER Blanco Dieguez
Gurasoak: Maximo eta M.^a Con-cep-ción
- 27an: SERGIO Campos Ramos
Gurasoak: Javier eta Isabel
- 27an: OROI-PELIS Segura Loliola
Gurasoak: Fermin eta Ana Rosa
- 28an: MARTIN Zubilaga Lasa
Gurasoak: Santiago eta Arantza
- 30ean: SARA Azurmendi Sagues
Gurasoak: Antonio eta Regina

URTARRILA

- 11ean: LEIRE Agirre Arruabarrena
Gurasoak: Manuel eta M.^a Guada-lupe
- 19an: SARA Vega-Hazas Anistieta
Gurasoak: Gonzalo eta Elena

EZKONTZAK

AZAROA

- 6an: Aitor Olasagasti Galarza, Hondarribikoa eta Bakarne Segura Olaitola, Hondarribikoa.

ABENDUA

- 3an: Salvador Etxebeste Martinez, Hondarribikoa eta Luisa Larraite Feal, Hondarribikoa.
- 3an: Antonio Lekaroz Perez, Irungoa eta M.^a Aranzazu Amunarriz Cortina, Hondarribikoa.
- 3an: Amador Villamia Ugarte, Gasteiz-koa eta M.^a Reyes Ramirez Gonzalez, Hondarribikoa.
- 16an: Carlos Eduardo Novillo Tedesco, Argentinakoa eta Rut Martin Etxe-nagusia, Hondarribikoa.
- 17an: Manuel Rodriguez Alvarez, Hondarribikoa eta Isis Camps Salz Hondarribikoa.
- 26an: Juan Francisco de Asis Maraver Cortezo, Madrigoa eta Ana-Carla Poplawski Barker, Hondarribikoa.

URTARRILA

- 7an: Jose M.^a Redondo Etxeberria, Donostiakoa eta M.^a Jose Ocliden Ma-yoz, Hondarribikoa.

HERIOTZAK

ABENDUA

- 15ean: Julio Hornes Garcia 78 urtekoa.
- Saindua, 7
- 19an: Jose Otegi Galarza
Kosta Auzokoa.
- 20an: Jose Ramon Olaitola Lombide 73 urtekoa. Arrantzale Auzoa, 28.
- 21ean: Daniela Anzisar Arozena 87 urtekoa Foru Kalea (Ibas-Aurra).
- 23an: Gorka Gutierrez Gende 16 urtekoa Mendala Auzoa.

URTARRILA

- 12an: Jose Antonio Peña Irastorza.
- 12an: Rufina Lekuona Arbelaiz 87 urtekoa Madalen Karrika, 6 - 4.
- 12an: Visitacion Puig Gomez 82 urtekoa Sorroetaberi, 10 - 3.
- 13an: Anastasia Ugartemendia Errazkin 84 urtekoa Kosta Auzoa (Urbil-enea).
- 13ean: Juan Bautista Etxabe Alkiza Eguzkilorre, 1.
- 18an: Elvira Gierfu Aizpeolea 82 urtekoa San Pedro Kalea, 91 - 3.
- 19an: Efigenia Barquin Riveras 83 urtekoa Zaharren Egoitza.
- 26an: Angeles Virto Etxeberria 85 urtekoa Kale Nagusia, 31 - 3.

MUGAN

Ipar alde, itsaso eierra. Bayiko harri. Markan alaberara hau duk gure kantua, atzo harrapatu bagendun bi domino toli gaur ia harrapatu ditugun hiru edo lau.

Bota pikatxua!!

Eguerdia aldera ipar haizea gelditu eta handik pixkatxera enbata ekarri ziken, eta horrela gure motorra frantses uretan sartu zuken, nahiz eta pikatxua gure uretan egon.

Halako batan etorri zuken guardi frantsesa denak emanak guregana, eta gure hurbilera etorri zenean hala marra egin ziken marinel euskaldun batek:

- Komandantiak esaten du aingula alatzeko, frantses uretan zaudetela ta.

- Esaiok hire komandantiari ezetz.

Hemen zio berriz ere guregana.

- Komandantiak esaten du alde egiteko hemendik, bestela Baionara eramango zaituztela preso.

- Esaiok hire Komandante jaunari lehorreko markak ondo begiritzeko, nik oso ondo dakitela non gauden.

Orduan guardi frantsesak radiotik deitu ziken, etzakiet nora, eta guri besterik esan gabe laja zigukun pakean eta alde egin ziken.

Arratsaldean, etxean sartu naizenian, lau domino toliak saiduta, hala esan ziaiken nere andriak:

- Deltu dute komandantiak, esanaz, hara agertzeko endania berean... Orain ere etxon bat egin duzu...

-Lasai, andre, legea nere alde dago ta.

Bidasoako Komandantiak (Don Robertok) dena ikusi ziken kateajukin Komandantziako balkoitik, eta marinel batek esan zein zen barku hartako patroia. Sartu naken Komandantzia eta... hala esan ziaiken Don Robertok:

- Komandante frantsesan partetik

"Merci beaucoup", zure delermerioz ikasi dituelako muga hontako legeak.

Horrela ikasi ziken Komandante frantsesak mugatik bi aldeetara 40 metro ur libre direla.

Nik bota niken pikatxua ur esparioletan, marra-marra, ipar haizeakin, bañan enbata haizea ekarri zuenian, haizeak berak bota ziaiken mugaren beste aldeara, bañon ez 40 metro bañon gehiago, eta horregatik naken ur libreetan eta pikatxua ur esparioletan.

Hilario Martinez
(Nere aitak kontatua)


ARBOLAK LANDATZEKO ETA TXERTATZEKO SASOIA

Jende askok uste duenez, baseritarrek negu aldian izaten dute lasai antzean egiteko modua, hori da behintzat batek baino gehiagok pentsatzen duena. Baina esan, esaten da ere baserrietan sekulan ez direla lanak amaitzen, baizik eta utzi egin behar izaten direla. Uste dut gauza berdina gertatzen dela baserria ez den beste toki askotan ere, alegia, zenbaitzuei sekulan ez zaiela lanarik bukatzen, baina beste norbaitzuek denbora libre dexte edukitzen duela, eta hori, zaila izaten da jakiten zergatik izaten den...


Kontuak-kontu, kustuoa da lana egin nahi duenak beti aurkitzen duela zer edo zer egiteko, eta gehiago baserri batean. Halare, negu aldean izaten da lo gehixeago egiteko aukera, nahiz eta aro hau aprobetxatu behar izaten den beste hainbeste gisako lanak burutu ahal izateko. Horrela, arbolak ere lo edo deskantsua hartzen dute neguan eta eguzkiagorantz indar pixka batekin abiatzen denean hasten dira esnatzen; horrexegatik, erabat atzari baino lehenago egin behar izaten omen dira zuhaitz landaketak eta txertaketak, hau da, zuhaitzei izerdia hasi baino lehenago edo hasteko puntuan, bestela alperrik izaten bait da.

Gisa hontan, lehen, arbolak landatzeko eta txertatzeko sasoiak. Otsaila aldean izaten zen, baina orain txertaketari dagokionean aldatu egin da, batez ere, mintegietan

etab.. Esan daiteke gehiena iraila aldean egiten dela, antzinako zahar batzu kendu eskeroztik, ziurragoa eta arbolak gutxiago sofritzen omen duelako. Horrela bada, nahiz eta ehun eta berrogeitamar txertomota ezberdin gutxi-gora behera ezagutzen baldin badira ere, gure lurraldeko nekazariak eta frutagileak erabiltzen dituzten moduak edo erak bi edo hiru dira: Bata, begi-ninik egiten dena eta beste, mentuaz egiten dena.



BEGIKOA, mintegietan eta frutu-arbolak zabaltzeko gehiago erabiltzen dena da. Gure lurraldeetan iraila da hilenik egokiena eta ehuneko gehienak hartzen du. Komeni da txertaketa egin baino egun batzu lehenago, txertoa edo mentua jartzeko aukeratu den gerriondoiari adarxkak kentzea. Txertaketarako behar ditugun "begiak" txerto egunean bertan (edo egun bat edo bi aurretik gehienez) moztuko dira, eta zerbaitetik lehenago mozteta tokatuko balitz, ontzi batean, uretan gordeko dira behar den garaia heltzen den arte.



Neguren azken aldera edo udaberriaren hasiera egiten diren txertaketarako komeni da gerriondoren esnatzea edo izerdia mentuarena baino aurreratuagoa egotea; hori horrela ez izateak, gerriondok ez lioke mentuari behar hainbateko izerdi eta ezetasunik eman ahal izango. Hori lortzeko, otsail-marxoan mentu bezala erabiliko diren adarxkak leku fresko batean gordeko dira, ahalbada frigorifikoan plastikazko poltsa batean. Ondoren txertaketa egin baino bi edo hiru egun aurretik txotxaren muturrak uretan jartzen direlarik.

J. Bereau

Duela hirurogei urte idatzia

HONDARRIBIAR BATEN SUKALDE LIBURUA

NEKAZARITZA

La cocina práctica, liburuskat bat da, txikia neurrit, Petra Laborda sukaldari hondarribiar sinatua, 1929an argitaratua, duela hirurogei urte.

Lanak 110 orrialde dituelarik ia hirurehun errezeta biltzen ditu, eta Imprenta Comercial zelakoan argitaratu zuten, Irun-go Kale Nagusian.

Hondarribiko etxe askotan egongo da segur aski.

Nik dudana, duela urte batzuk Frantzisko Sagarzazu jaunaren (G.B.) familiak eman zidan, hainbat urtez herriko alkate izan genuen artezale, arte mota guzien zale, eta sukaldaritzarena bereziki, izan zen haren familiak alegia.

Esaten didatenez, Petra Laborda Madrilgo etxe ospetsuetan izan zen sukaldari (berorrek ere "cocinera de la antigua condesa de Santiago" esaten dio bere buruari), Kale Nagusian sukaldaritzaren eskola bat ireki zuen eta gure herriko gazte asko pasa ziren bertatik.

Aipamen biok nabari dira, beste asko bezala, errezeten idazketan. Izanaki, mende hasierako sukalde famatuaren erabili ohi zirenak dira, fratzesei deiturak kontuaz, horretan trebea izan bait zen gure protagonista, baina grafikoki huts egin zion, belarritz jasoko bait zuten.

Bestealde, garbi dago liburua ikasleen laguntza gisa idatzitako zuela, hobeki jarrai ziezaioten ikastaldietan eta etxeko ihardu-nean. Ez da kopururik ematen, ezta osagai-rik aipatzen ere, baina aholku praktikoa zerrenda bat dator oso gogoan hartzeko, egungo egunaren batez ere, sukalde lana hain presaka egiten delarik bigarren mailakoak direlakoan alde batera uzten diren xehetasunak dira, baina nolabehi ere lanari azken ukitu arrakastatsua ematen diotenak.

ARRANTZA

Legazketariak hor dabilta eten gabe lanean eguraldi onari esker. Arrantza oparoak izan ditugu orain arte eta salneurriak ere oso onak.

Legatza - kiloko 2.400 pezeta arte olandu da

Arrozela - kiloko 3.200 pezeta arte olandu da

Mediana - kiloko 1.900 pezeta arte olandu da

Peskadilla - kiloko 1.100 pezeta arte olandu da.

Gabon jaia inguratzen direnean prezioak gora egiten dute, urteroko kontua dugu hau.

Txitxarroa ere oso denbora gutxian eta erruz sartu da Bentan, baita prezio onean saldu ere, kiloko 250 pezetetan kainaberaz



Horrela, adibidez, bakailaua prestatu baino lehen, gatza kendutakoan, ezkatat kentzea aholkatzen du. Egiztatu ahal izan dudanez, badiara sukaldariak, nahiz eta itsasertzeak eta Portuan jaiok izan, bakailauak ezkatat dituenik ez zekitenak, eta arrantzaleek arraina gatzetan jartzen dutenean ezkatok ez direla kentzen, hobeto kontserbatzeko, ere ez.

Atun gorriaren xerrak, zenbait minutuz, ur gatzetan edukitzea gomendatzen du, odola bota dezan eta arrainaren itxura zurragoa izan dadin.

Sukaldari aritu zen Madrilgo etxean ez zuten muskuilu gehiegirik jango segur aski. Molusko hau mespreziatua zen garai hartan, baita gure herrian ere, berak, ordea, gogoko omen zuen eta errezeta ematen du. Tipula berotua, baratxuri eta perrexil pikatua, ardo txuria eta piper hautsa dauzkan lurrezko kaxuelan irekitzea gomendatzen du. Formulak inolako sekreturik ez badu ez badu ere izenak badu graziarik: "Músculos mariscos". Petra jatorrak "muskulluk"

esango zien beti baina hitza erdaraz ematerakoan mariskoak zirela argitu behar izan zuen, ez gihareak, alegia.

Irakas helburuari atxikiz, liburuko azken orrialdeetan aipaturiko plateren konbinazio batzuk eskaintzen ditu, aldi berezietan hainbat menu prestatzeko: bazkari eta otordu normalak, eztaietakoak, ehiztari otorduk, e.a.

Hona hemen Petrak proposatzen zuen "Otordu Berezia": zopa italiarra, entremes ugariak, frejitu ugariak, menestra, koneju "giriulet", oilasko erreak, lonbarda entsalada eta bildots erreka. Postre moduan: paxa buding-a, bizkotxo genobesa, fruta eta gazta. Bustitzeko ardo ugariak eta txanpainak.


Hondarribiko kutsua duen zerbaiten aipamen bakarra: "Galletas Arrosteguis". Ba ote zuten zenikuzin Gregorio Marañon bizi zen etxearrekin?

Juan Jose Lapir.

hartutako txitxarroa. Arrain honek estimazio gutxi izaten du merkatuan, baina, azken boladan badirudi bere haragi gozoo preziazten hasiak garela eta aurrean inolako baina hobeia izan da haren salmenta. Gertatzen dena zera da, arrain merkeak gutxiesten ditugula, garestiak hobeak direlakoan baina hau ez da beti egia izaten. Txitxarroa eta beste arrain mota asko ere mespretxatuak izaten dira eta hori ezjakintasuna dela esango nuke, ongi atondu ezker oso onak dira jateko, ohitura kontua besterik ez da eta elikagai bezala legatz. arrozal eta beste arrain garesti horiek adina propietate onak dituzte.

Dakizueenez, arrantzuntzi handiak geldirik daude datorren kanpainarako listatzen. Lehen iteera martxo haseran izango dute antxoa bila, izango ahal dugu ihaz baino zorte hobeki!

Andres Olaskoaga



UDALA

FAROKO BIBEROAK

Farolaren ondoan zeuden jatetxea eta biberok erabat utziak eta hautsiak daude aspaldi honetan. Orain ez dago ezer, e- struktura hutsa izan ezik. Ez dago kristalik ez egurrik, ez azulejorik, ez kable, ez tuberi- arik. Dena lapurtu dute eta behin baino gehiagotan barruan su egin ere bai. Hondamendi horretan arriku handia dago eta edozein istripu gerta daiteke noiz-nahi, itsas ertzeko amitegian dagoelarik batez ere. Udalak behin eta berriz itxi ditu sarre- rak baina alferrik izan da beti. "Grandes Vi- veros del Faro de Fuenterrabia, S.A." elkar- teak, bestalde, zenbait hipoteka eta bahitu- ra izan ditu urteetan zehar. Lurra (10.118 m.²) Udalarena da eta 1968.ko apirilaren 26ko Plenoan biberok jartzeko utzi zuten 30 urtez. Dagoen egoeran dagoelarik, or- dea, badiudi hartzaileak bere eskubideak erabat galdu dituela eta Udalak berrir- a jartzeko eskubide osoa duela, lurraz eta bertan eraikitakoaz. Horretarako legezko bideei ekitea erabaki zuten urtarrilaren 26ko plenoan.

59. POLIGONOAREN MUGAKETA PARTZIALA

Pleno berean Udak 59. poligonoko lur urbanoaren mugaketa partzialerako propo- sarena onartu zuten Udak. Poligono hor- retan Gaintxurizketako "kotxe-hilerria" dago. Kotxe zaharren pilaketa baimenik gabe hasi zen aspaldi eta ia inguru horren antolaketara zenaztu gabe zegoenez gero beharrezkoa zen erabakiren bat hartzea batetik desguazea legezatzeko eta beste- tik bazter horni zor zaien txukuntasuna gor- de arazteko. Proposamenaren arabera poli- gono horretako 14.000 m.² lur urbanoa izango dira eta gainerakoak lehen bezala iraungo du.

POSTETXEO ERASOA

Urtarrilaren 14ean zenbait lagunek aur- pegiak txanoz estalirik Hondarribiko Poste- txeko kristalak hautsi zituzten, aurrekal- dean eta Miramarrera ematen duen aldean. Urtarrilaren 26ko Plenoan EA, EAJ, EE eta PSE-PSOE alderdiek Zerbitzu publiko ho- nen kontrako ekintza kondenatu zuten mo- zio baten bidez. HBk, berriz, beste mozio alternatibo bat aurkeztu zuten Euskal herria- ren egoera politikoa aipatuz indarkeriaren arrazoiztat. Plenoan lehen mozioa onartu zuten. Zenbaiten ustez ekintza hau mende- kua izan zitekeen, egun haletan Iparraldean "Josu Ternera" etarraren atxiloteta gertatu zela eta.

ABIADURA HANDIKO TRENA

Frantziako Administrazioak jakin arazi duenez 1.990. urtean Hendaiara iritsiko omen da Abiadura Handiko Trena (TAV de- lakoa), baina oraingoz ez omen dago Irun- dik eta Euskal herri- tik zehar eramateko as- murririk. Honek Euskal herria, eta Bidasoa- ki- eskualdeari batipat, ondorengo urteetan



Kasino Zaharra, jubilatuaren etxea.

kalte larriak ekarriko dizkiola gogoan hartu- rik mozio bat sinatu zuten EE, EAJ, EE eta PSE-PSOE alderdiek, Mozioan Espainiako Gobernuari asmoa aldatu dezala eskatzen zaio trena Hendaiara-Irun-Bilbo-Madrid bide- tik eramanez. Bestetik dei egiten zaie Eus- ko Jaurilaritza eta lau Diputazioei arazo honen aurrean behar diren erabakiak har- ditzaten. HBk bere aldetik beste mozio al- ternatibo bat aurkeztu zuten. Mozioan Eus- kadiren desertizazioa eta marjinazioa Esta- tuak nahita eraginak direla zioren, Euskadi- ren askatasun egarria zigortu asmoz, eta, bestetik, egoera honek Euskadi erailitzeko Estatutaren balioa erakusten duela. Ple- noak lehen mozioa onartu zuten.

INAUTERIETAN, "TXANPA" LEHENA

Bukaturberriak ditugun inauterietan "Txanpa" elkartea izan dugu txapeldun ka- rozetan eta taldeetan, otsailaren 5ean, igande, izan zen lehiaketan, bietan gertatu bait dira lehenak mendelutar saiatuak. Zo- rionak! Bai gurdian eta bai konpartsan ba-

soko poesia banatu dute gure kaleetan zehar, pinpilinpauza, ampola gorri, lore, pe- retxiko eta abarrez moztorturik.

Karrozetan bigarren, Amute-Kostako "trena" gelditu zen; hirugarrena, Klink-eko "harem-a"; laugarrena, Lagunak, abiadura handiko trenarekin, eta, bosgarren, Itxas- Etxeko sareak.

Taldeka, bigarren, "sorginak" gelditu zi- ren, eta, hirugarren, Klink-eko harem-ki- deak.

Mozortortan, taldeka, sambazaleak izan geniten lehenbizikoak; itxak, bigarren, eta, tabakoaren etsaiki hirugarren tokian. Bakarka, lehena, alfonbra saltzaileak; biga- rrena, Simbad, eta hirugarrena lehen jau- nartzeko moztortza.

Epaimahaian, Itxaki Arzak, Jose Luis Noain eta Juan Jose Lapitz jaunak izan zi- ren.

Otsailaren 7an txardinari lurremateko negar malko artean bukatu ziren aurtengo inauterik.

